

Koikili Lertxundi

«Kirol taldeetan euskara ez erabiltzea ohitura arazoa da»

Futbolean azken boladan mugitzen ari diren diru kopuruen lizunkeria ikusita, poza ematen du oinak lurrean ondo bermatuta dituen eliteko kirolari batekin berba egiteak, eta ez gara ari bakarrik San Mameseko ezker hegaleko lurraz. Euskara bultzatzen jo eta ke dabil Koikili Lertxundi (Bilbo, 1980) Athleticeko jokalaria, futbol zelaian darabilen adore berarekin.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona

ATHLETICEN lehen taldera ia ezustean iritsi zen, 2007/08 denboraldian, Historian lizentziatutako otxandiar hau. Lehengo lanbidea ez zuen utzi haatik. Itzarri enpresako sortzaileetako bat da, eta zuzendaritza eta koordinazio lanak egiten ditu bertan. Lan horietako askok euskara sustatzea dute helburu.

Itzarri ezagutzaren gestio enpresa da, euskarari berebiziko garrantzia ematen diona. Nondik datorkizue euskaltzetasuna?

Jatorriz. Kide guztiak euskaldunak gara gaur egun, eta izena ere euskaraz du enpresak. Hasieratik eman genion garrantzia euskarari, lehenengo gure buruarekiko, euskara baloretzat hartuz, eta gero saltoa eman genuen euskara sail berezia sortuz. Sail horren eginkizuna zen, batetik, Itzarri euskaldunago bihurtzea, eta gainera zerbitzuak eskaintzea besteei, euskaldunagoak izateko. Hezkuntza arloan tailer bat ematen dugu, eta badugu beste zerbitzu bat kirol elkarteentzat, gazte mailara arte lan-saioak euskaraz egin ditzaten. Horretan gabilta murgilduta azken urte eta erdian.



Langile guztiak euskaldunak izanda ere, ez da erraza euskaraz aritzea enpresa munduan...

Guk hori ematen dugu bezeroak eskatu ala ez. Askotan, egiten ditugun lanak txosten batean aurkeztu behar dira, eta aurkezpenak bezeroaren arabera izaten dira, baina gure dokumentazio guztia euskaraz eta erdaraz dago. Horrek lan zama handitzen digu. Kasu batzuetan, bezeroa euskalduna

bada, euskara hutsez ematen diogu dena. Kirol elkarteetan euskarazko lan-saioak bultzatzen ari garenez, udaletako euskara zerbitzuekin dauzkagu harremanak, eta horiek, logikoki, euskara hutsezkoak dira.

Kirol elkarteetan zer aurkitu duzue euskararen presentziari dagokionez?

Probintziatik probintziara alde handia dago. EAEn, Gipuzkoan ohitura dago kalean erabiltzeko, Bizkaian ez eta Araban gutxiago. Hori da dagoena, eta kirola ez da salbuespena.

Bizkaian, eskualde euskaldunetan ere erdara nagusi?

Erabiltzen da euskara, baina badaude euskaldunak direnak eta erabilera nahiko baxua daukatenak. Kirolean asko nabaritzen da. Zoritxarrez ohitura arazoa da, ez da ezjakintasuna. Guk hori ikusi dugu proiektu batzuetan, eta gainera horiei bideratuta dugu lana: entrenatzailea euskalduna izan, jokalarien %90 euskaldunak izan, baina euskararen erabilera zero da. Hor eragin behar dugu. Egia da entrenatzaileek hiztegi aldetik gabezia daukatela, formazio aldetik ere bai, baina batez ere ohituran daukate gabeziarik handiena. Hor eraginez uste dugu

Messirekin euskaraz

Elkarrizketa hau Lezaman egiten ari garenez gero... Zer presentzia dauka euskarak Athleticek aldagelan?

Egia esan nahikoa. Euskaldun gehienon artean euskaraz egiten dugu, esango nuke jokalarion %60 garelako euskaldunak, eta erabilera, guztira, %40koa dela.

Eta erabiltzen duzue euskara

partiduetan, aurkariak zer jokaldi egingo duzuen ez igartzeko?

Bai, gainera Joaquínnek [Caparrós] beti eskatzen digu hala egiteko, baita aurkariari kontzentrazioa galarazteko ere. Kopako finalean Messiri etengabe euskaraz egiteko esan zidan. Eta estrategia jokaldietan, noski. Taldeko erdaldunek ere menperatzen dute hiztegi txiki bat.

lor daitekeela behe mailako taldeak euskalduntzea.

Zelan, ordea?

Guk dugun formatuan bizpahiru pertsonen ematen ditugu saioak. Bat erreferentea da; kasu horretan ni saiatzen naiz saioetan egoten, batez ere umeei begira, motibazioa izateko eta eurek ikusteko beraien-tzat erreferentea den pertsona batek euskara normaltasunez erabiltzen duela, eta ez behartuta. Hasieran esaten diegu: hona etorri gara saioa euskaraz ematera, baina nahi duguna da zuek normaltasunez erabiltzea. Hau da, normalean erdaraz egiten baduzue, eta ulertzekoa da ohituta zaudetelako, ba egin erdaraz, baina gu hona euskaraz egitera gatoz.

Atxikimendua lortzea da helburua...

Bai. Nahi duguna da eurei gustatzen zaien ekintzan, kasu honetan futbola —zerbitzua batez ere futbolera bideratzen da—, euskara erabil-

tzea normaltasunez eta behartu gabe. Nahiko emaitza onak lortu ditugu.

Badaude kirol batzuk beste batzuk baino euskaldunagoak?

Uste dut baietz. Baina kirol motak baino eskualdeak du zerikusia. Eskualderik euskaldunenetan kirol gehienetan euskaraz egiten da. Eta oso inportantea da entrenatzailea. Azken batean hura da transmisore nagusia, eta guk horri eragin nahi diogu, entrenatzaile euskaldunekin lan eginez.

Eta zer jarrera dute entrenatzaileak?

Oña. Entrenatzaile euskaldunak bilatu ditugu, eta guk lagundu egiten diegu. Saio bereziak antolatzen ditugu —horretarako Athleticek laguntza izan dugu, metodologia prestatzeko—, eta saio horiek ematen dizkiegu entrenatzaileei. Hasieran hainbat ariketaren azalpena egiten dugu, baina gero laguntzaile hutsak gara, nahi duguna da entrenatzaileak

zuzentzea saioa. Ez guk, hurrengo egunean ez garelako egongo. Gainera, hiztegi tekniko txikia prestatu dugu, kontsultarako balio diezaiekeen, kontzeptu sinpleekin. Uste dut lortu dugula sentsibilizatzea behintzat.

Betikoa: herri gehienetan ume gehienek badakite euskaraz, baina noraino eragiten du batek edo bik ez jakiteak?

Hori normalean aitzakia da entrenatzailearentzat. Berarentzat erosoagoa delako euskaraz ez egitea. Kontua da gehienak euskaldunak izanda euskaraz ez dakala lekurik. Horretarako ere lanean gabiltza, eta demostratu dugu saio bat euskaraz eman daitekeela nahiz eta batzuk erdaldunak izan, eta erdaldun horiekin erdara erabili.

Eskoletan ere ari zara euskara sustatzeko programa batean parte hartzen, Jose Angel Iribarrekin batera. Jakina, zure irudia baliatzea da gakoetako bat. Athleticen fitxatu zintue-nean ikusi zenuten proiektua aurrera ateratzeko abagunea egokia zela?

Tira, erabili dugu geure irudia indartzeko, enpresarentzat aukera ona zen. Lehenago ere eremu komertzialean egiten nuen lan, eta badakit zein zaila den. Orain, eza-guna naizenez, erraztasunak ditut jendearekin harremanean jartzeko. Zoritxarrez horrela dago antolatuta gizartea. Gure hausnarketa izan zen: orain badugu aukera hori eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko erabili dezakegu, gainera euskara bultzatuz. ■

SURFEATU, GEURIEN BE BAI,

EUSKARAREN OLATUAN

BERMEOKO UDALA Euskara Saila

euskera@bermeo.org • 946 179 122 Geurien be bai

www.bermeo.org **itzulpenzerbitzua@bermeo.org • 946 179 104**